Climathon
Eibar

# EIBARKO KLIMATHONAREN ERRONKAK

| | |
|---|---|
| **ERRONKAREN IZENBURUA**<br><br>Energia berriztagarriak sortzeko sistemak (eolikoa eta fotovoltaikoa) fabrikatzeko erabiltzen diren materialei bigarren bizitza bat emateko proposamenak. | **HURA BULTZATZEN DUTEN ERAKUNDEAK**<br><br>EKONOMIA ZIRKULARREKO GELA - EHU-UPV |
| **KONPONDU BEHARREKO FUNTSEZKO ARAZOA**<br><br>**(Edo erakundeak duen eta ikertu nahi duen premia).**<br>Haize-sorgailuen eta plaka fotovoltaikoen fabrikazioan erabilitako materialei bizitza berri bat ematea. Produktu berriak egiteko edo materialei eta sistemei erabilgarritasun-irteera berriak emateko prozesu berriez ari gara. | **TESTUINGURUA**<br><br>**(Azaldu erronka zein testuingurutan garatu nahi den).**<br>Sorkuntza berriztagarriko instalazioek (eolikoa edo fotovoltaikoa) beren balio-bizitza amaitzen dutenean, material desberdinez osatuta daude, eta kasu batzuetan ezin dira berrerabili. |
| **EKARTZEN DITUEN ONURAK**<br><br>**(Zer lortu nahi den erronkarekin).**<br>● Hondakinak murriztea zabortegian.<br>● Ekonomia zirkularra sustatzea.<br>● Materialen kontsumoa murriztea.<br>● Kutsatzaile posibleak murriztea.<br>● Hiri-diseinurako ekimen alternatiboak sustatzea. | **MUGATZAILE POSIBLEAK**<br><br>**(Erronka aurrera eramateko arazoak identifikatzea).**<br>Aerosorgailuak eta plaka fotovoltaikoak diseinatzeko erabiltzen diren konposatuen eta materialen konplexutasuna. Fabrikazio-prozesuei buruz eskuragarri dagoen informazioa. Produktu berriak egungo araudietan txertatzea. |
| **TRAZABILITATEA DENBORAN**<br><br>**(Zer gertatzen da erronkarekin Climathon ekitaldiaren ondoren? Erronkaren jarraipena)**.<br>Unibertsitateko adituen eta erakunde laguntzaileen eskutik bideragarritasun-ildoak baloratzea. Climathon delakoan aurkezten diren proiektuak garatzeko funtsezko eragileak (partnerrak) bilatzea. | **BULTZATZAILEEN KONPROMISOAK**<br><br>**(Epe luzerako konpromisoa Climathonen erronka landu duen taldearekin).**<br>Erronkari irtenbideak aurkezten dizkioten taldeek beren lana TFG edo TFM bidez eta enpresetako praktiken bidez garatzen jarraitu ahal izateko espazioak sortzea. |